

BIDEGIK 3,5 MILIOI EURO INBERTITUKO DITU IRUN MENDEBALDEKO ORDAINLEKUAN TELEORDAINKETARAKO BI BIDE BERRI JARTZEKO

Proiektuari esker Via T sistema erabiltzen duten ibilgailuak azkarrago igaroko dira, izan ere, ordainleku honetatik igarotzen diren ibilgailuen %50ak sistema hori erabiltzen du

Proiektua: Irun mendebaldeko ordainlekuko ekipamentuaren handitzea (teleordainketarako bi bide berriren ezarpena)

Inbertsioa: 3, 5 milioi euro (Eraikuntza + instalazioak)

Lanak burutzeko epea: 7 hilabete

Egoera: Obrak esleitua

Eraikuntza: 1, 7 milioi euro. Urbycolan SL

Instalazioak: 1, 8 milioi euro. Telvent-Inabensa

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentziaren bidez, 3,5 milioi euro inbertituko ditu Irun mendebaldeko ordainlekuaren ahalmena handitzeko. Ordainleku honek Irun eta Hondarribiatik datozen edota udalerrri hauekara doazen erabiltzaileei zerbitzua ematen die. Gaur egun, ordainleku honek zortzi bide ditu, hortaz, handitzen denean, hamar izatera iritsiko da.

Ordainlekuan, zehazki, bi pasabide berri ipiniko dira, teleordainketarako soilik erabiliko direnak. Ekintza honi esker nabarmen hobetuko da ordainleku honetako trafikoa, izan ere, bertatik igarotzen diren ibilgailuen %50ak sistema hau erabiltzen du dagoeneko eta gainera, ordainketa modu hau erabiltzeko joera hazten ari da.

Lan hauek burutzeko epea 7 hilabetekoa da. Aurrekontua berriz, 3,5 milioi eurokoa da guztira. Lanak Ikei Research & Consultancy S.A. enpresak erredaktatutako proiektuan oinarrituko dira eta Irun mendebaldeko ordainlekua teleordainketara zuzendutako bi pasabide berriekin hornituko du, zirkulazio norabide bakoitzerako bana (sarrera eta irteera autobideko enborrean).